

Eusko Jaurlaritzak Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa taldeen jarduerak babesteko laguntzak emateko deialdi bat (2013-2018) argitaratu du

Interneteko helbidea: <http://www.hezkuntza.eigv.euskadi.net>

1) DEIALDIAREN HELBURUA:

Deialdi honen helburua zientzia esperimentaletako, zientzia teknikoetako, zientzia medikoetako, ekonomia eta enpresa zientzietako, gizarte zientzietako eta zientzia juridikoetako, eta giza zientzietako ikerketak egiteko oinarriko finantziario bat bermatuko duten laguntzak ematea da, baita ikerketa horiek gauzatu ahal izateko beharrezko azpiegitura zientifikoa eskuratzeko laguntza ematea ere. Hori guztia ikerketa jarduerak errazteko eta sustatzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitateetako sailtako eta unibertsitate institutu etako taldeek egindako ikerketen kalitate zientifikoa hobetzeko asmoz.

2) ONURADUNAK:

Ikerketa taldeetako ikertzaile nagusiak atxikita dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak.

3) IKERKETA TALDEEN OSAERA:

a) Langile doktoreak:

- Estatutuen edo kontratuen bidez UPV/EHUri lotutako irakasle eta ikertzaileak.
- UPV/EHUri atxikitako IKERBASQUE fundazioko ikertzaile doktoreak (*Research Professor* edo *Research Fellow*).
- Sare publikoko ospitaleei, alegia, Osakidetzari, atxikitako ikertzaileak. Parte-hartze horien baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateek eta Osakidetzak ospitale horietarako ezarritako hitzarmenetan zehaztutakoak izango dira.
- Ikerketa taldeko ikertzaile nagusiak taldeko kidea izan beharko du, eta kontratu iraunkorra eta arduraldi osoa edo horren antzekoa eduki beharko ditu.
- Talde bakoitzak ikertzaile nagusi bakarra eduki ahal izango du.

b) Doktoreak ez diren langileak

- Estatutuen edo kontratuen bidez UPV/EHUri lotutako irakasle eta ikertzaileak.
- Prestakuntza prozesuan eta kontratu bidez UPV/EHUri lotuta dauden ikertzaileak.
- Prestakuntza prozesuan eta beka faseko doktoregai gisa atxikita dauden ikertzaileak.

- c) **Unibertsitate desberdinetako taldekideak:** Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate desberdinetako langileak talde bereko kideak izan daitezke, baina taldea bere ikertzaile nagusiari dagokion unibertsitateari lotuko zaio.
- d) **Inork ezin du deialdiko eskaera bat baino gehiagotan parte hartu.**

4) TALDEAREN AURRETIKO LAN ESPERIENTZIA:

Ikerketa taldeko kide gehienek 2006tik eskaera datara arte taldean lan egin dutela frogatu beharko dute, beren ikerketa ildoan arteko kohesioa eta konbergentzia agerian utziz:

- Batera egindako argitalpen zientifikoak, proiektu komunak edo teknologia transferitzeko edo ezagutza gizarteratzeko jarduera partekatuak.
- Aginduan ez dago zehaztuta “kide gehienek” adierazpenak zer esan nahi duen.

5) TALDEAREN GUTXIENEO EKOIZPEN ZIENTIFIKOA:

Taldeak gutxieneko ekoizpen hauek izan beharko ditu gauzatuta:

- a) **doktore bakoitzeko bi argitalpen zientifiko, 2006tik laguntza eskatzeko datara arte.** Baldintzak:
 - Pertsona bat baino gehiagoren artean egindako argitalpenak behin bakarrik kontatzen dira.
 - Argitalpentzat joko dira:
 - ✓ liburuak, liburuen kapituluak: ISBN dutenak bakarrik hartuko dira kontuan.
 - ✓ berrikuspenak, ebaluaziodun argitalpen elektronikoak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak: kanpoko ebaluazioa jaso dutenak eta Web of Science, ISI edo Scopus datu-baseetan indexatuta daudenak bakarrik hartuko dira kontuan.
- b) **Dagoeneko amaitutako eta 2006. urtearen eta laguntza eskatzeko dataren artean defendatutako bi doktorego tesi**
 - Taldeko ikertzaile nagusiak 41 urte baino gutxiago baditu 2012-12-31n, baldintza hau betetzeko, dagoeneko defendatutako doktorego tesiak eta oraindik defendatu gabe daudenak (baldin eta 2006a baino beranduago inskribatuta badaude) har daitezke kontuan.
- c) **2010-2012 aldian lehiaketa bidezko deialdi batean lortutako ikerketa proiektu bat**

6) TALDETIK KANPOKO LANKIDEAK. Taldeak kanpoko lankideak eduki ahal izango ditu, baldintza hauek betez gero:

- Kanpoko lankideak ez dira kontuan hartzen taldearen ekoizpen zientifikoan.

- Taldean sartzeko, ikerketa taldeak proposatutako helburuekin bat datorren ikerketa ibilbidea gauzatu dutela frogatu beharko dute.
- Kanpoko lankideak irakasle bisitariak eta/edo eskatzailea ez den beste erakunde bateko ikertzaileak izan daitezke.

7) IKERKETAN LAGUNTZEKO LANGILEAK: Ikerketarako administrazio laguntza eta laguntza teknikoa emango duten langileak ez dira taldeko kideztat hartuko, ikertzaileak izan ezean.

8) DEIALDITIK KANPO GELDITUTAKO TALDEAK:

Deialditik kanpo geldituko dira 2013-2015 aldirako finantziazioa duten talde finkatuak, laguntza hori oraindik indarrean egongo baita deialdi honetarako eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

2012-12-31n amaitzen den finantziazioa jasotzen ari diren taldeek deialdian parte har dezakete.

9) TALDEENTZAKO LAGUNTZAK ERABILTZEKO ALDIA:

- Laguntza erabiltzeko aldia hiru edo sei urtekoa izango da, emakidaren erabakian ezarritakoaren arabera.
- 2013ko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta 2015-12-31n edo 2018-12-31n amaituko da.

10) ONARTUTAKO GASTU KONTZEPTUAK:

- Ikertzaile doktoreen eta prestakuntza prozesuan dauden ikertzaileen kontratazioa (Zientziaren Legearen 22. eta 21. artikulua, hurrenez hurren).
- Ikerketan laguntzeko langileen kontratazioa: goi mailako titulazioa (Lanbide Heziketa edo beste edozein).
- Ekipamendu zientifiko edo bibliografiko txikien erosketa: ekipamendu bakoitzaren balioak gehienez 18.000 eurokoa izan beharko du, BEZ gabe.

Ekipamendu informatikoa eta bulegokoa ez dira inola ere hemen sartzen.

- Beste gastu arrunt batzuk. Ikerketa taldeen jarduerak gauzatzeko beharrezko gastu guztiak.
- Estatutuen edo kontratuen bidez UPV/EHUri lotutako langile finkoen ordainketa: ez da hemen sartzen.

11) ESKAEREN AURKEZPENA:

- a) Eskaerak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik, **2012ko uztailaren 28tik, 2012ko irailaren 20ra arte** egongo da irekita.
- b) Ikerketa talde bakoitzak eskalera formularioa bete beharko du telematikoki, aplikazio hau erabilia: <http://www.ikerketa-taldeak.net>.
- Horretarako, taldeko ikertzaile nagusiak aplikazioko erabiltzaile gisa alta eman eta bertan zehaztutako argibideei jarraitu beharko die.
 - Aurreko deialdiren batean, 2010-2015 edo 2007-2012 aldietan, onartutako taldeen kasuan, ikertzaile nagusiak bere aurreko eskaeran emandako informazioa berreskuratu ahal izango du.
 - Ikertzaile nagusia aldatu bada, ordeztutako pertsonaren baimena aurkeztu beharko da datuak eskuratzeko.
- c) Deialdi berrirako eskaera epea amaitu ondoren, taldeen emaitza zientifikoei buruko informazioa bilduko da, eskema honen arabera:
- Lehen hiru urteei buruzko txostena (2010-2012): **2010-2015 deialdiko A eta B taldeentzat.**
 - Sei urteei buruzko txostena (2007-2012): **2007-2012 deialdiko A taldeentzat.**
- Informazio hau <http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioan ere eman beharko da; bertan, horretarako atal espezifiko bat diseinatuko da. **Ikertzaileek 2013-2018 deialdirako eskaeretan aurrez sartutako informazio guztia online eskuratu ahal izango dute.**
- d) Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, ezin izango da aldaketarik egin eskaeran.

12) UPV/EHUK ESKAERAK SINATZEA:

- Eskaera osoa bete eta telematikoki bidali ondoren, inprimatu eta ikerketa taldeko kide guztiek sinatu beharko duten laburpen dokumentu bat sortuko da.
- Inprimatutako eta taldekide guztiek sinatutako dokumentua Ikerketako Errektoreordetzara bidali behar da (2012-09-14a baino lehen), paperean Ikerketako errektoreordeak sina dezan.
Sinatutako jatorrizko dokumentoaz gain, aipatutako dokumentoa eskaneatuta convocatorias.dgi@ehu.es helbidera bidali behar da.
- Beraz, aurkeztutako eskaera guztiak 2012-09-14a baino lehen bidali behar dira Ikerketako Errektoreordetzara, bertan sinatu eta EJra bidal ditzaten.

13) UPV/EHUko HARREMANETARAKO PERTSONAK:

Gainerako ohar guztiak honako bi pertsona hauetako bati egin beharko zaizkio:

José Carlos Gómez Tel.: 94 601 50 38 josecarlos.gomez@ehu.es	Amaia Sanchez Tel.: 94 601 52 91 amaia.sanchez@ehu.es
--	--

14) EJko HARREMANETARAKO PERTSONAK:

Patxi Esparza Tel.: 945 01 82 95 Faxa: 945 01 84 22 huisl142@ej-gv.es	Marian De Paz (abuztuaren 6tik aurrera) Tel.: 945 01 82 98
--	--